

## PERUTXIÑEN KONEJU ZURIA

Iñusentetzat deukie errian Peru Totolo.

Amabi urte, eta bein be eskolara joan bako mutilla, gure Perutxiñ.

Iñusentia? Iñusentia izango da bear bada, baia entzun zelakoa egin daben, joan dan astean bertan.

\* \* \*

Merienda-askari on bat egin bear dabiela erriko mutil gazte batzuk, eta iñon kontura.

Jose Baldras da mutillon buru, eta Perutxiñ Totolori deitu deuzo, kukurruku egiten dabelakoan Baldras mutil eder orrek:

- *I, Perutxiñ, etorri ai ona.*
- *Bai. Emen neiyauk.*
- *Bost ogerlekoko bat irebastie gure dok?*
- *Orixo bai baietz!*
- *Ba, ixillien arrapau eta koneju eder bat ekarrik biyer ga-berako.*
- *Bai. Erriyen dauenik ederrena ekarrikuat.*
- *Ixillien gero!*
- *Bai, ixillien.*

\* \* \*

Esan eta egin, urrengo gabian or nun betetan dabien egiñiko trautua, erriko taberna osteko tejamana zarrían.

- *Autzozak bost ogerlekuok, eta ez esan iñori be au, Perutxiñ.*  
— *Trankill egon, abadie bera be ezta konturatuko ta.*

\* \* \*

Ez eutzan esan iñori Perutxiñ Totolok, baiña Jose Baldras-en amak bai urrengo egunian:

- *Eztok ikusi gure koneju zuriye, Joxe?*  
— *Zer ba?*  
— *Eztok agiri oillotokiyen da. Piztiyen bat ibili ezpadok gabien or...*

Piztiye bai... zera, Perutxiñ Totolo ogigaztaia. Ederra sartu deuzto Joxe Baldras-i.

BITAÑO

